

OZEANIA

ARLOA: Musika

MAILA: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak

DENBORALIZAZIOA: 16 ordu, 30 minutu

HELBURU OROKORRAK

- Kazetaritzaren munduan murgiltzea lanbide horretako eginbeharrak zein diren gertutik ezagutzeko.
- Euskarazko IKT baliabideei esker, ikasleen konpetentzia musikala garatzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Kazetarien lana aprobetxatuz, Ozeaniako dantzak, abestiak, berezitasunak eta bitxitasunak ikastea.
- Berdinen arteko komunikazioa bultzatzea.
- Aurkezpen-gaitasunak garatzea.
- Taldeko lana sustatzea eta jorratzea.

JARDUEREN SEKUENTZIA

A) HASIERA FASEA

1. JARDUERA: [Jarduera orokorra](#)
2. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

B) GARAPEN FASEA

3. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen
4. JARDUERA: Zelanda Berria
5. JARDUERA: Maoriak
6. JARDUERA: Fiji
7. JARDUERA: Australia
8. JARDUERA: Gidoia sortzen
9. JARDUERA: Gidoia osatu

C) AMAIERA FASEA

10. JARDUERA: Grabaketa
11. JARDUERA: Edizioa
12. JARDUERA: Aurkezpena
13. JARDUERA: Ebaluazioa

A) HASIERA FASEA

1. JARDUERA: [Jarduera orokorra](#)

2. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

Denboralizazioa	30 minutu
Materiala	Lan-koadernoa
Helburuak	Ozeaniari buruz dituzten aurrezagutzak partekatzea.

Jardueraren garapena:

Jarduera honetan, Ozeaniari buruz dituzten aurrezagutzak pentsatu eta adieraziko dituzte. Jadanik badakite Ozeaniari buruz bideo-erreportaje bat osatu beharko dutela eta, bertan, kontinente horretako herrialdeak erakutsi beharko dituztela, hango dantzak eta musikak oinarri hartuta.

Jarduera honen bidez, ikasleak kontinente honetan murgildu nahi ditugu. Horretarako, Ozeaniak dituen gauza bereizgarri eta deigarrien buruz egingo dute lan, betiere beren aurrezagutzetatik hasita.

Lehenik eta behin, **bakarka** jarriko dira eta galdera batzuei buruz hausnartu beharko dute. Horrek Ozeaniaz pentsatzen hasteko balio izango die. Baina zer dakite kontinente honi buruz? Non dago? Zer herrialde aurkitu ditzakegu bertan? Mota horretako galderak erantzun beharko dituzte. Horretarako, **lan-koadernoan** aurkituko dituzten galderak erantzuten saiatuko dira. Ez du axola inolako jakintzarik ez edukitzea, ondoren taldean elkartuko baitira. Asmoa, ikasleak pentsatzen jartzea izango da eta, ondoren, taldekideekin batera, galderak osatzen ahalegintzea. Laguntza bezala, webgunean, jardueraren orrialdean, irudi batzuk aurkituko dituzte, Ozeaniarekin lotura dutenak.

Denbora-tarte bat utzi ondoren (5-10 minutu inguru), euren taldearekin elkartuko dira eta erantzunak partekatuko dituzte. Ikasle bakoitzak bere erantzunak partekatuko ditu, denek euren ekarpena egin arte. Helburua izango da elkarrekin lan koadernoko dokumentua osatzea.

Bukatzeko, hurrengo jardueran egokitu zaien kontinenteko herrialdeei buruz informazioa bilatu beharko dutela aurreratuko zaie ikasleei.

B) GARAPEN FASEA

3. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen

Denboralizazioa	1h
Materiala	Lan-koadernoa, herrialdeen informazioa bilatzeko estekak eta bilaketa aurreratua egiteko oinarritzko azalpenak
Helburuak	• Ozeaniako herrialdeei buruz informazioa bilatzea eta biltzea. • Informazioaren bilaketa prozesuan, baliagarriak zaizkien emaitzak identifikatzen jakitea.

Jardueraren garapena:

Aurreko jardueraren bitartez, Ozeaniako kontinentean murgiltzen hasi dira ikasleak, eta hari buruz dituzten aurrezagutzak ikusi dituzte. Orain, berriro ere gogoraraziko zaie unitate honen azken asmoa zein den: kazetarien gisara, bideo-erreportaje batean ikaskideei Ozeaniako berezitasunak erakustea, hango musika eta dantzak oinarri hartuta.

Ikasleei esango zaie informazioa biltzea dela erreportaje hori egiteko kazetari batek egin behar duen lehenengo lana. Izan ere, honelako lan bat egiteko lehen urratsa, beti, informazioa bilatzea eta jasotzea da. Garapen-fase honetan, jarduera honetatik hasita, horixe egingo dute: Ozeaniako herrialde batzuei buruz informazioa bildu eta antolatu. Kasu honetan, lau herrialde eta kultura hartuko dituzte aintzat: Zelanda Berria, Australia, Fiji eta Maoriak.

Ikasleei askatasuna emango zaie nahi duten lekuan bilatzeko informazioa, baina beti gogoraraziko zaie orrialde seguruetan bilatzearen garrantzia. Adibide bezala, hona hemen orrialde ofizialetatik eskuratutako esteka batzuk:

- Zelanda Berria: <https://www.newzealand.com/cl/>
- Australia: http://www.exteriores.gob.es/documents/fichaspais/australia_ficha%20pais.pdf
- Fiji: http://www.exteriores.gob.es/Documents/FichasPais/FIJI_FICHA%20PAIS.pdf
- Maoriak: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Maori>

Ikasleek aukera izango dute aurkitzen duten informazio guztia jardueraren **lan-koadernoan** ipintzeko. Lagungarri bezala, honako galdera hauei erantzuten dien informazioa bilatu dezakete:

- Non kokatzen dira?
- Zein da hiriburua?
- Zenbat biztanle dituzte?
- Zer hizkuntzatan hitz egiten dute?

Ikasleak talde desberdinetan banatu daitezke herrialdeei buruz informazioa bilatzeko. Horrela, talde bakoitzak herrialde bati dagokion informazioa bilatuko luke. Ondoren, taldekideei informazio horren berri eman beharko liekete, dena amankomunean jartzeko.

Sarean bilaketak egiteko garaian, garrantzitsua da bakoitzak bilatu nahi duena aurkitu ahal izatea. Horretarako, bilatzaileek **bilaketa aurreratua** erabiltzen dute. Funtzio horrek aukera ematen du bilaketa-emaitzak murriztu eta bilatzen dugun hori aurkitzeko. Horretarako, jarduera honen orrialdean, bilatzaile batzuetan (Google, DuckDuckGo, Bing) funtzio hori nola erabili azaltzen duen baliabide bat aurkituko dute.

4. JARDUERA: Zelanda Berria

Denboralizazioa	1h
Materiala	Lan-koadernoak, herrialdeko bideoa eta abestiaren letra
Helburuak	• Zelanda Berriari dagokion abestiaren esanahia ezagutzea. • Bertako abestiaren nondik norakoak ikasi eta hura interpretatzea.

Jardueraren garapena:

Aurreko jardueran, dagoeneko, ikasleek, egokitu zaien kontinenteari dagokion informazioa eskuratu dute. Herrialde hauetan landuko diren musika, abesti eta dantza desberdinek aukera emango diete ikasleei, batetik, bertako kulturak gertutik ezagutzeko eta, bestetik, konpetentzia artistikoak lantzeko, herrialde bakoitzeko berezitasunak kontutan hartuz. Ikasleek, jardueren bitartez **ikusi eta sortuko dituzten baliabideak euren erreportaje grabaketarako erabili ahal izango dituzte**. Kasu honetan, jarduera honen bidez, Zelanda Berrian murgilduko dira, bertako abesti tradizional baten bitartez hain zuzen ere. Jarduera honetan, beraz, ABESTIA landuko dute.

Jarduera honetan, ikasleek euren kabuz egingo dute lan, webgunean izango dituzten jarraibideak jarraituz. Zelanda Berrian ezaguna den abesti bat landuko dute hain zuzen ere: ***Pokarekare Ana***. Abesti hori *maori* hizkuntzan dago idatzia, horregatik, ikasleek egin beharko duten lehenengo lana, abesti honi buruz informazioa bilatzea izango da, bere esanahia ezagutzeko asmoz. Horrela, taldean bilduko dira eta **lan-koadernoan** aurkituko dituzten galderak erantzuten saiatuko dira elkarrekin. Horretarako, nahi dituzten bitartekoak erabili ahal izango dituzte informazioa bilatzeko. Euren helburua, galdera hauetan oinarritutako galderak erantzutea izango da:

- Zertaz hitz egiten du abestiak?
- Zergatik idatzi zen abesti hau?
- Zer urtetan idatzi zen?

Lan-koadernoan jasotako informazio hori ebaluagarria izango da eta irakaslearekin batera partekatuko da.

Informazioa bildu ondoren, Zelanda Berriaren kulturaren murgilduko dira ikasleak, horretarako, abesti hori ikasten saiatuko dira bideoan aurkituko dituzten azalpenei jarraituta. Letraren zailtasunak kontutan edukita, errepika ikastearekin nahikoa izango dute eta, beste zati guztia, bideoan ikusten den bezala, mugimenduen bitartez jarraitu ahal izango dute. Kasu honetan, ez dute beharrezko izango hura grabatzea eta erakustea.

5. JARDUERA: Maoriak

Denbormalizazioa	1h
Materiala	Lan-koadernoak, herrialdeko bideoa eta abestiaren letra
Helburuak	• Maoriekin zerikusia duen abestia ezagutu eta ulertzea. • Abestia oinarri hartuta hura interpretatzea, bideoaren jarraibideekin.

Jardueraren garapena:

Zelanda Berriko abestiaren bitartez, ikasleak hasi dira Ozeaniako kultura pixkanaka ezagutzen. Jarduera honetan, beraz, **maorien** ohituretan murgilduko dira, hain zuzen ere, beraien kulturarekin lotutako abesti batean oinarritutako historia ezagutuz. Jarduera honetan, beraz, ABESTIA landuko dute.

Jakina da bertako hizkuntza ez dela batere ezaguna guretzat eta, askotan, gerlariarekin lotu izaten ditugu maoriak. Kasu honetan, anaitasunarekin lotutako abesti bat landuko dute.

Lan-koadernoak erabili ahal izango dute jarduera osatzeko. Lehenik eta behin, bakarka, abestiaren letra irakurriko dute, nahi adina aldiz. Helburua, abestiak zer transmititzen dien imajinatzea izango da (5 minutuz). Seguraski zaila egingo zaie hitzen esanahiak edo abestia bera ulertzea, horregatik jolastu nahi da imajinarioarekin. Zer transmititzen die hitz bakoitzak? Zerbaitekin lotzeko gai dira? Bakarka abestia irakurri eta hausnartu ondoren, euren taldean elkartuko dira eta bakoitzak abestiko letraren bidez irudikatu duena adieraziko du. Elkarren artean hitz egin eta hausnartu ondoren (5 minutuz), **lan-koadernoko** galderak erantzuten saiatuko dira:

- Zerbait ulertzen al duzue?
- Zerbait ulertzen baduzue, zer da ulertzen duzuen?
- Hitzen bat zerbaitekin erlazionatzeko gai zarete?

Galdera hauek taldean erantzun ondoren, maorien abestiarekin lotutako bideoa ikusiko dute osorik. Bideoa lagungarria egingo zaie abestiaren testuingurua zertxobait ezagutu eta bere doinuak nolakoak diren entzuteko.

Bideoa ikusi ondoren, berriz ere taldean elkartuko dira eta lan-koadernoko hurrengo galdera osatzen saiatuko dira (10 minutuz):

- Zer esan nahi ote du letrak?
- Eta dantzak?

Kasu honetan, seguraski errazago egingo zaiela galdera hauei erantzutea, bideoaren azalpenei entzun eta bertako dantzak ikusteko denbora izan dutelako. Hala ere, hemen ere, euren interpretazio propioa egitea eskatuko zaie, taldean hausnar dezaten.

Jarduera bukatzeko, maorien bideoa berriro ikusiko dute eta hura interpretatzen saiatuko dira bertako urratsak errepikatuta. Horrekin batera, lan-koadernoko azken bi galderak erantzungo dituzte Ozeaniarekin lotura duten musika eta erritmoen inguruan hausnartzeko aukera izan dezaten.

6. JARDUERA: Fiji

Denboralizazioa	1h 30min
Materiala	Herrialdeko bideoa, audioa, kamera edo mugikorra eta bi tutu ikasle bakoitzarentzat
Helburuak	• Fijin erabiltzen dituzten instrumentu ereduak jolastea. • Gorputz-perkusioa lantzea.

Jardueraren garapena:

Ozeaniako abestiak entzun eta aztertu ondoren, bertan aurki daitezkeen instrumentuak landuko dituzte jarduera honen bitartez, horretarako gorputz-perkusioarekin lotutako dinamika burutuz. Jarduera honetan, beraz, GORPUTZ-PERKUSIOA jorratuko dute.

Lehenik eta behin, Fijiri hasiera emateko eta bertako uharteen inguruko informazioa eskuratzeko asmoz, Fijiri buruz informazio laburra bilatzeko eskatuko zaie. Hori joko modura planteatu daiteke, ikasleei Fijiko Errepublika zenbat uhartek osatzen duten galdetuz. Ikasle bakoitzak bere zifra bota dezake eta, ondoren, Interneten erantzuna bilatu. Modu honetan, uharte kopurua asmatu duena nor izan den edo gertuen ibili dena nor izan den ikusiko dute.

Jarraian, **gorputz-perkusioaren** dinamikarekin jarraituko dute, beraz, jarduera honetarako beharrezko izango dituzten bi tutu hartuko dituzte ikasleek. Tutuen ezaugarriak:

- Tutu hauek kartoizkoak eta luzeak izatea gomendatzen da.

Tutuak prest dituztela, ikasleek bideoa ikusiko dute Fijin egiten duten makil-jolasa ezagutu dezaten. Bideoko jolasaren urratsak jarraitzeak aukera eskainiko die ikasleei Fijiko ohituretako dantzak ikasteko, bukaerako erreportajearen erakutsi ahal izango dituztenak. Beraiek behar duten denbora hartuko dute bertako pausuak ikasteko. Tuturik ez izatekotan, bideoak aukera eskaintzen die, modu alternatiboan, gorputz-perkusioaren bitartez dantza ikasteko.

Bertako pausuak ikasi ondoren, euren buruak makil-jolasa egiten grabatzeko eskatuko zaie kamera edo mugikorraren bitartez, ondoren irakaslearekin

partekatu dezaten grabazioa. Bideoaren iraupena laburra izatea eskatuko zaie, bideoan azaldutako pausuak ikasi dituztela erakusteko izango da baliagarria. Abestia webgunean bertan izango dute eskuragarri.

Gehigarri moduan, makil-jolasa egiteko erabili dituzten tutuak apaintzeko aukera eskainiko zaie, eurek nahi duten moduan pertsonalizatu ditzaten margo, errotuladore edota gometxen bidez.

7. JARDUERA: Australia

Denbormalizazioa	1h 30min
Materiala	Herrialdeko bideoa, audioa eta kamera edo mugikorra
Helburuak	• Gorputz-espresioa lantzea. • Sormena garatzea abesti batean oinarritutako dantza asmatzeko.

Jardueraren garapena:

Jarduera honen bitartez, ikasleen sormena landuko da, horretarako, Ozeaniarekin lotzen duten dantza bat prestatu beharko dute. Hala ere, ezerezetik hasi beharrean, Australiako dantza bat hartuko dute oinarri bezala. Jarduerarekin hasteko, beraz, **"5, 6, 7, 8"** abestiarekin egindako dantzaren bideoa ikusi eta ikasten saiatuko dira ikasleak. Bertako pausuei arreta jartzeko eskatuko zaie, horiek ondoren euren dantzan txertatu beharko dituztelako. Jarduera honetan, beraz, DANTZA landuko dute.

Bideoko azalpenei jarraitu eta dantza ikasi ondoren, bertako abestian oinarritzen den dantza bat sortu beharko dute. Askatasuna emango zaie eurek nahi dituzten pausuak gehitzeko, baina aurreko herrialdeetan ikusitako pausuak gehitu ahal izango dizkiote. **"5, 6, 7, 8"** abestiarekin azaltzen diren urratsak erabili ditzakete oinarri bezala, eta, ondoren, eurek nahi dituztenak gehitu, adibidez. Abestia webgunean bertan izango dute eskuragarri.

Denbora tarte bat eskainiko zaie dantza asmatu eta ikasteko. Behin lan hori bukatuta dutela, eurek sortutako dantza grabatzeko eskatuko zaie. Kasu honetan ere, bideo labur bat grabatu beharko dute, sortutako dantza erakusteko baliagarria izango zaiena.

8. JARDUERA: Gidoia sortzen

Denboralizazioa	1h
Materiala	Herrialde desberdinetako bideoak eta lan-koadernoak
Helburuak	• Erreportaje baten grabaketa egin aurretik gidoia egitearen garrantziaz jabetzea. • Gidoi bat sortzeko lehen urratsak lantzea.

Jardueraren garapena:

Dagoeneko ikasleek Ozeaniako herrialde desberdinetako dantza, musika eta instrumentuak ezagutu dituzte, eta herrialde bakoitzeko kulturen barneratu dira. Kazetariak egin bezala, mota askotako informazioa jaso dute kontinente honi buruz erreportajea egiteko. Mota honetako lanak egin aurretik ongi etortzen da egitura edo eskema bat sortzea. Gidoi hauek lagungarriak izaten dira ondoren egin beharreko grabaketan jarraitu beharreko pausuak zein diren argi edukitzeko, eta okerrak saihesteko. Eskema hauek lagundu egiten gaituzte buruan ditugun ideiak paper batean jarri eta azken produktu horren ikuspegi orokor bat osatzeko. Jarduera honetan, beraz, bideo-erreportajea grabatzeko erabiliko duten gidoia sortzen hasiko dira. Horregatik, lehenik eta behin, garrantzitsua da gidoia egitearen garrantziaz ohartaraztea ikasleak.

Gidoia egiten hasteko, garrantzitsua da era askotako ereduak edukitzea, horregatik, orain arte herrialde desberdinetan agertu diren bideoak hartuko dituzte oinarri bezala. Aurretik ikusitako herrialdeetako 4 bideoak ikusiko dituzte baina, kasu honetan, ez dituzte bertako abesti edo dantzak ikasteko erabiliko, bertako grabaketetan ikusten dituzten zati bereizgarriak zein diren identifikatzeko baizik.

Bideo-erreportajeetan zati desberdinak agertzen dira normalean: sarrera bat, azalpen bat eta, ondoren, dantza edo abestiaren interpretazioa. Laguntza bezala, gako hauek eman diezaizkiekegu.

Bideoak ikusi eta analizatu ondoren, **lan-koadernoan** adierazi beharko dute bideoetako zati bakoitzean ikusten dutena zer den, laburki. Hori lagungarria egingo zaie zati bakoitzean agertu behar duena zer izan behar duen jakiteko; eredu bat edukitzeko. Modu honetan, grabaketa batek izan ditzakeen sekuentziak nolakoak diren ikusiko dute.

Ikusi dituzten bideoetatik informazioa atera eta lan-koadernoan apuntatu ondoren, euren erreportajearen gidoi proposamena egiten hasiko dira. Lan-koadernoan bertan atal bat izango dute eskuragarri euren proposamenak idazten joan daitezen. Lagungarri bezala, ondoko galderak erantzun ditzakete:

- Nola aurkeztuko dugu erreportajea?
- Zer herrialderi buruz hitz egingo dugu lehenengo?
- Zer azalduko dugu herrialde bakoitzetik?
- Nola azalduko dugu?
- Zer dantza/abesti ikusiko ditugu?

Horrekin batera, herrialde bakoitzaren azalpena zein zatitan bana ditzaketen erabaki dezakete ere. Horretarako, lan-koadernoan, SARRERA, KORAPILOA eta AMAIERA ataletan adierazi ahal izango dute nola egituratuko dituzten herrialdeen kontakizunak, adibidez: Zelanda Berriari buruz informazioa eman eta bere abestiaren aurkezpena egin, Maorioei buruz informazioa eman eta bere abestiaren aurkezpena egin... Horrekin batera, gogoraraziko zaie aurreko jardueretan sortu dituzten baliabideak euren erreportajearen txertatu ahal izango dituztela ere.

Lan hori taldeka egin beharko dute, horretarako, "Arkatzak erdira" izeneko teknika erabili daiteke:

Ikasleek "arkatzak erdira" esango dute. Orduan, taldeko ikasle guztiek arkatzak mahai gainean jarriko dituzte. Momentu horretan hitz egiteko aukera egongo da, baina ez, ordea, idazteko.

Taldekideetako batek galdera ozen irakurriko du eta galderari erantzuteko iritzia ematen lehena izango da. Jarraian, taldeko kide guztiei beren iritzia galdetuko die; orden zehatza jarraituko du (erloju-orratzen noranzkoa, adibidez) eta kide guztiek informazioa eta iritzia ematen dutela bermatuko du.

Adierazitako iritzi guztiak oinarritzat hartuta, eztabaidatu egingo dute eta guztien artean erabakiko dute zer den ipiniko dutena, gidoi proposamen moduan. Une horretan ezingo da hitz egin, idatzi bakarrik.

Ikasleren batek ariketa egitean zalantzarik badauka, "arkatzak erdira" eskatuko du berriro, galderak egin ahal izateko. Orduan, taldekide guztiek idazteari utzi egingo diote.

Prozedura errepikatu egingo da dena erantzunda geratzen den arte.

9. JARDUERA: Gidoia osatu

Denbormalizazioa	1h
Materiala	Lan-koadernoa eta storyboard-a egiten laguntzeko jarraibidea
Helburuak	• Grabaketa baten gidoia egiteko eman beharreko pausak ikustea eta euren erreportajeari dagokiona garatzea. • Talde-lanean trebatzea gidoiaosatzen duten bitartean.

Jardueraren garapena:

Aurreko jardueran, gidoi-proposamen bat osatu dute eta erreportajea nola antolatuko den erabaki dute. Jarduera horretan, beste urrats bat emango dute aurrera gidoiaren osaketan, *Storyboard* bat osatuz. Ikasleek ariketaren webgunean bertan aurkitu ahal izango dute horri buruz informazioa, baina finean, bineta-multzo bat da egin beharko dutena, zenbait elementu grafikoki adieraziz (irudi bidez) modu sinplean. Helburua da, grabaketa egin aurretik, zer egitura izango duen irudikatzea eta plano bakoitzean zer agertuko den zehaztea, komiki baten antzera. Bineta bakoitzean plano baten irudikapena agertzen denez, lagungarria da gidoia grafikoki adierazteko.

Gidoi grafiko baten gisara defini genezake, beraz.

Webguneko azalpenean bertan aurkituko dituzte *Storyboard*-a osatzeko jarraitu beharreko urratsak ere.

1. Gidoi proposamena egin

Lehenik eta behin, garrantzitsuena gidoi-proposamena egitea da. Hori aurreko jardueran egin duzue jada. Badakizue, beraz, zein egitura izango duen zuen erreportajeak. Horrela ez bada, prestatu ezazue.

2. Momentuak aukeratu

Pentsatu zein diren zuen erreportaje horretako momentu garrantzitsuenak edo nabarmendu beharrekoak. Horiek identifikatzea lagungarri egingo zaizue ondoren binetetan irudikatzeko.

3. Momentu horiek marraztu

Momentu horiek aukeratu ondoren, binetetan marraztu itzazue. Gogoratu sekuentzia baten arabera irudikatu behar duzuela dena, hurrenkera bati jarraituz hasieratik bukaeraraino, komiki batean bezala. Irudien kalitateak ez du oso ona izan behar, plano horretan irudikatu nahi duzuen adierazteko baliagarria izatearekin nahikoa da.

4. Informazioa idatzi

Irudien azpian informazioa idatzi. Osatu irudi bidez adierazitakoa eta bertan agertuko dena azaldu.

5. Gidoia osatu

Gidoia osatu ondoren, prest egongo zarete grabaketa egiteko. Bertan adierazitakoa jarraitu besterik ez duzue egin beharko.

Lanketa hori egiteko, taldeak sortzea gomendatzen da, lanaren banaketa egin eta denek gidoi grafikoaren osaketan parte hartzen dutela bermatzeko. Talde batek sarrerari dagokion atala landu dezake, beste batek garapen atala eta hirugarrenak amaierako atala, adibidez.

Behin gidoia prest edukita, gidoi grafikoa edo *Storyboard*-a osatzeko hartuko dute tarteak. **Lan-koardenoan** aurkituko dute hura osatzeko txantiloia eta bertako lauki eta galderak har ditzakete gidoi grafiko hori osatzeko oinarri bezala. Hona hemen storyboarda osatzeko galdera lagungarri batzuk:

- Zer azalduko da eszena honetan?
- Nork hitz egingo du/dute?
- Zer material beharko duzue? Eta zer arropa?

Ondoren, lauki bakoitzean, eszena bakoitzari dagokion marrazki adierazgarria irudikatu beharko dute. Horrek eszena hori nola grabatuko duten jakiteko balioko die, hain zuzen ere.

Kontuan edukita hurrengo jarduera erreportajearen grabaketara bideratuko dela, denbora aprobetxatu dezakete grabazio egun horretan beharko dituzten materialak zerrendatu eta bakoitzak zer ekarriko duen erabakitzeke.

C) AMAIERA FASEA

10. JARDUERA: Grabaketa

Denbormalizazioa	2h 30min
Materiala	Kamera edo mugikorra eta grabaketarako behar duten materiala
Helburuak	• Bideo grabaketaren bitartez ikasleak prozesu artistiko baten sorkuntzan murgiltzea. • Prozesu sortzaile bat aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabide eta laguntzak eskaintzea.

Jardueraren garapena:

Aurreko jardueraren bidez, Ozeaniari buruz erreportajearen grabaketa nola egingo duten erabaki dute ikasleek eta, hori garbi utzita, grabazioa egiteko unea izango dute jarduera honetan. Aurreko jardueran erabilitako *Storyboard*-a eskura izan dezakete, zer egin behar duten garbi izan dezaten. Bestetik, grabaketa egin aurretik, beharrezko duten material guztia prest izan beharko dute.

Irakasleak ikasleei gogoraraziko die euren lana, kazetarien gisara, ikaskideei bideo-erreportaje batean Ozeaniako berezitasunak erakustea dela, hango musika eta dantzak oinarri hartuta. Ikasleek pazientzia izan beharko dute, emaitza definitiboa zaila delako lehenengoan ateratzea. Garrantzitsua izango da azken emaitza ikasleek irudikatu nahi izan duten ideiaren ildo berekoa izatea.

Behin grabaketa egina dutela, taldean erabakiko dute ea emaitza gustatu zaien edota beste hartualdi bat egin beharko duten. Gomendio bezala, bideo osoa jarraian grabatu beharrean, atalka grabatu dezakete.

11. JARDUERA: Edizioa

Denbormalizazioa	2h
Materiala	Bideo ediziorako softwarea eta bideo-tutorialak
Helburuak	• Bideo-ediziorako baliabideak ezagutzea eta erabiltzea. • Bideo-ediziorako baliabideen ezaugarriak eta funtzioak ikustea.

Jardueraren garapena:

Aurreko jardueran, erreportajerako behar dituzten grabaketa guztiak egin dituzte; hurrengo urratsa, beraz, edizio lana egitea da. Jarduera honetan, grabatutako bideo guztiak elkartu eta beharrezkoak iruditzen zaizkien moldaketak egingo dituzte. Hala, edizio lan hori egiteko erabil ditzaketen baliabide aukerak ezagutuko dituzte.

Gelan bertan, bideoak editatzeko erabili daitekeen baliabiderik ezagutzen duten galdetuko zaie aurretik, eta arbelean idatziko dira. Haietaz zer dakiten ere galdetuko zaie, edota noiz erabili dituzten bideo bat egiteko. Modu honetan, ikaskide guztiek ikusiko dute mota askotako baliabideak aurki daitezkeela edizio lanak egiteko, eta ikaskideen azalpenen bitartez, horiek erabiltzea erraza dela irudikatu ahal izango dute. Ez badute baliabiderik ezagutzen, hemen dituzue bideo edizioa egiteko erabili daitezkeen doako bi aukera: OpenShot eta Windows.

Hona hemen horiek erabiltzeko azalpenak:

- OpenShot: <https://www.youtube.com/watch?v=PsjyPUEMaEE&t=385s>
- Windows: <https://youtu.be/UMBbDCSgTvw>

Hala ere, askatasuna emango zaie eurek nahi duten editorea erabiltzeko, posible baita eurek besteren bat erabiltzeko ohitura izatea. Egin beharko duten lana sortu dituzten bideoak elkartzea izango da. Hortik aurrera, nahi dituzten efektuak txertatu ahal izango dituzte.

12. JARDUERA: Aurkezpena

Denboralizazioa	1h
Materiala	Aurkezpenak erakusteko bideo-erreproduzitzaila
Helburuak	• Kontinente bakoitzaren berezitasunak ikusi eta ezagutzea. • Ikaskideen lanak kritikotasunez ikustea eta aztertzea.

Jardueraren garapena:

Lana amaitu ondoren, gelakideen aurrean aurkezpenak egiteko aukera izango dute jarduera honetan.

Ikasleek aukera paregabea izango dute kontinente bakoitzaren berezitasunak gertutik ezagutu eta tokian tokiko kulturarekin lotutako ohiturak ikusteko. Munduan zeharreko herrialdeak ezagutuko dituzte ikaskideen aurkezpenen bitartez.

Behin talde bakoitzak bere aurkezpena egin duela, gelako ikaskideek aukera izango dute erreportajearen inguruko edota grabazio prozesuaren inguruko galderak egiteko.

13. JARDUERA: Ebaluazioa

Denboralizazioa	1h
Materiala	Lan-koadernoak
Helburuak	• Unitatean zehar egin duten lanaz hausnartzea, bakarka zein taldeka.

Jardueraren garapena:

Sekuentzia honen amaieran, ikasleek beren autoebaluazioa egingo dute. Taula honetan, unitatean zehar nola aritu diren azalduko dute, beren jarduna erregulatu ahal izateko eta hobetzeko dituzten aspektuak identifikatzeko.

Auto-ebaluazioan, oinarrizko zehar-konpetentzien garapenean egindako aurrerapausoak baloratu beharko dituzte, eta baita arteko eta teknologiako konpetentziei dagozkienak ere.

Taula lan-koadernoan bakarka bete ondoren, talde txikitan partekatuko dituzte beraien hausnarketak eta hobekuntza proposamenak egingo dizkiote elkarri.

Azkenik, talde handian, lan-prozesu guztian ikasi dutenaz hitz egingo da, izan dituzten zailtasunak aipatuko dira eta horiek hobetzeko proposamenak egin, irakaslearen laguntzarekin.

Oinarrizko zehar-konpetentziak

Zer egin dut?	Nola aritu naiz?	Zer egin dezaket hobetzeko?
Komunikatzen ikasteko... Ahozko azalpenak eta idatzizko testuak era egokian eta zuzen sortzen ahalegindu naiz.		
Ikasten ikasteko... Bideo-erreportajea egiten aritu naiz emandako ereduari jarraituz.		
Elkarbizitzen ikasteko... Taldekideekin zereginak partekatu ditut eta arduratsu jokatu dut nire betebeharrekin.		
Ekiten ikasteko... Egindako lanak berrikusteko eta hobetzeko zereginetan parte hartu dut.		
Izaten ikasteko... Nire ikuspuntuak eta sentimenduak taldekideekin partekatu ditut.		

Arterako konpetentzia

Zer egin dut?	Nola aritu naiz?	Zer egin dezaket hobetzeko?
---------------	------------------	-----------------------------

Musikaren bidez... Abesti, dantza eta instrumentuak landu ditut, unitatean zehar eskatutako moduan.		
---	--	--

Teknologiarako konpetentzia

Zer egin dut?	Nola aritu naiz?	Zer egin dezaket hobetzeko?
Baliabideak erabili... Produktu teknologikoak zentzuz erabili ditut, zertarako erabili nahi ditudan garbi utziz, bideoak edota audioak grabatzean zein edizio-aplikazioak erabiltzean.		